

Berezitasunetik maisu-lan klasikoetara

HALAXE sailka genezake Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldi honetako azken aurreko saioa. Gutuziek eta betiko pisuzko obrek, ondo nahastu eta dosifikaturik, egitarau orekatu eta gustagarria osatu zuten. Horrez gain, Elisabeth Leonskajak, aurtengo artista gonbidatuak, berme nahikoa eman zuen jakiteko alde zurretik saio hau ez zela txantxetako izango. Eta ez zigun hutsik egin.

Hasteko, sarrera gisa, *delicatessen* hutsa: Arvo Pärt konpositore estoniarren *Fratres* izeneko obra laburra, non aurki daitekeen bere konposizio estilo partikularra, berak asmatutakoa, *tintinnabuli* izeneko, minimalista, adierazkorra, baketsua. Boreyko zuzendariaren ulermen sakona begi-bistan geratu zen, benetan iritsi baitzitzaion publikoari lanaren mamia.

Ondoren, kontzertuaren erregina iritsi zen taula gainera. Leonskaja andreak ez ditu betiko irakurketak egiten obra famatuenekin. Ezta pentsatu ere. Aldi honetan, mila aldiz entzun dugun Schumann-en *La minorreko op. 54 piano eta orkestrarako kontzertua* desberdina iruditu zitzaigun. Desberdina eta arraroa, nahiz eta ederra. Baina Leonskajak eman zion garraztasun puntu ilun bat, batez ere lehenengo mugimenduari, eta horrek deserosotasun pittin bat sentiarazi zigun. Pedal justua, gutxi, soinu lehorra, beraz, oso azentu markatuak, eta noizean behin pasarte benetan ameslariak, gozoak... horrek guztiak bertsio bitxia egin zuen, eta, esan bezala, ohiko bideetatik ateratzen zena. Bis bezala, Beethoven delikatu eta aldi berean irmo bat oparitu zigun.

Saioaren bigarren zatia irekitzeko, Bachen koral ederrenetako bat, *Wachet auf, ruft uns die Stimme* (Esnatu, esaten digu ahotsak), Granville Bantock-ek orkestrarako moldatua, primerako sarreratxoa izan zen Paul Hindemith-en *Mathis pintorea* sinfonia dastatzeko. Artisten isolamendua irudikatu nahi izan zuen Hindemith-ek obra honekin, eta aitzakia gisa



Leonskajak ez ditu ohiko irakurketak egiten obra famatuekin.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Andrey Boreyko. **Bakarlaria:** Elisabeth Leonskaja (pianoa). **Egitaraua:** Pärt, Schumann, Bach eta Hindemith-en obrak.

Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.

Data: maiatzaren 25a.

hartu zuen XV. mendean bizi izan zen Mathis Grünewald margolaria, askatasun artistikoa aldarrikatu baitzuen bere garaian. Interpretazio ederra egin zuten Euskadiko Orkestrakoe. Azpimarragarria izan zen hirugarren mugimendua, *San Antonioren tentaldiak*, handientsu eta benetan ondo eraikia. ■

Montserrat Auzmendi



Esther Sound Sister
Ekitaldi kulturalak,
festak eta antzeko ekitaldietan musika jartzailea...

tickelsound@yahoo.es / ☎ 629 005 578

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegitratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com